



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gordexolako Udala****Alkate andreak Tokiko Gobernu Batzordeari eskumenak eskuordetzea**

Udalbatzak 2019ko ekainaren 24ko aparteko osoko bilkuran hartutako erabakia kontuan hartuta, alkate andreak 2019ko abuztuaren 22an eta 23an 224 eta 232 Alkatetza Dekretuak eman ditu, alkate andreak Tokiko Gobernu Batzordeari eskumenak eskuordeteari buruzkoak. Jarraian transkribatuta ematen dira:

«224/2019 DEKRETUA

Ekainaren 19ko 191/2015 Alkatetza Deretuaren bitartez, alkate andreak Tokiko Gobernu Batzordeari honako eskumenak eskuordetzea erabaki zuen:

- Kontratazio organo gisa Alkatetzaren eskumeneak diren obra kontratuei dagozkien eskumenak, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.
- Alkatetzaren eskumeneak diren obra proiektuak onestea, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.
- Alkatetzaren eskumeneak diren obraren aurrekontu eta guztiko txostenak onestea, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.

Ekainaren 25eko 162/2019 Alkatetza Deretuaren bitartez, Gobernu Batzordeari honako eskumenak eskuordetu zaizkio.

162/2019 alkatetza Dekretuaren bitartez eskuordetutako eskumenen artean ez daude arestian aipatutakoak (191/2015 Alkatetza Dekretuaren bitartez eskuordetutakoak), izan ere, udal antolaketa berriaren ondoren, erabaki da eskumen horiek Tokiko Gobernu Batzordeari ez eskuordetzea.

Eskumen horiek, hortaz, Alkatetzarenak izango direla kontuan hartuta.

Guztiek jakin dezaten publizitatea ematea interesekoa dela kontuan hartuta

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Honako eskumenak Alkatetzari dagozkio, eta ez dira eskuordetuko eta ez zaio eutsiko Tokiko Gobernu Batzordeari emandako eskuordetzari.

- Kontratazio organo gisa Alkatetzaren eskumeneak diren obra kontratuei dagozkien eskumenak, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.
- Alkatetzaren eskumeneak diren obra proiektuak onestea, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.
- Alkatetzaren eskumeneak diren obraren aurrekontu eta guztiko txostenak onestea, zenbatekoa (BEZa barne) hirurogeita hamabost mila eurotik gorakoa (75.000 €) denean.

Bigarrena: Udalbatzari hurrengo osoko bilkuran dekretu honen berri ematea. Gordexolan, 2019ko abuztuaren 22an.»

«232/2019 DERETUA

Tokiko Gobernu Batzordeari lege dagozkion eskumenez gain, Alkatetzak kide anitzeko batzordea den neurrian Tokiko Gobernu Batzordeari eskumenak eskuordetu diezaizkioke –honek hartutako erabakiak eskuordetutako gaien inguruan, alkateak berak ordezkatu ez dituen eskumenen balio bera izango dute (hala ere, Tokiko Gobernu Ba-



tzordearen funtzionamenduaren arauekin bat etorrira har ditzake), hortaz, horrek hirugarrenei ukitzen dizkieten ekintza administratiboen bitartez erabaki ahal izango du.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 eta 23.2 artikuluetan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 43., 44. eta 53. artikuluetan eta ezargarria den gainerako araubidean xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzordeari honako eskumenak eskuordetzea:

— Lehenengoz okupatzeko lizentzien eskabideak ebaztea (ematea edo ezezte).

Bigarrena: Eskuordetza Dekretuaren dataren biharramunetik izango du eragina, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko bada ere.

Hirugarrena: Udalbatzari hurrengo osoko bilkuran dekretu honen berri ematea.

Gordexolan, 2019ko abuztuaren 23an.»

Argitara ematen da guztiek jakin dezaten.

Gordexolan, 2019ko abuztuaren 26an.— Alkatea, Ángela María Eguía Liñero